

e) Ikasleen gainen ezagutzak

1. maila: Oinarrizkoa

Ez ditu behar beste ezagutzen ikasleen garapen-ezaugarriak eta ezaugarri pertsonalak, eta ez du tresna egokirik ikasleen aurretiazko ezagutzak, oinarrizko konpetentzien garapen-maila eta ikaskuntza-estiloak hautemateko.

2. maila: Garatze bidean

Ezagutzen ditu dagokion etapako ikasleen eboluzioaren faseei berezkoak zaizkien ezaugarriak.

Ezagutzen ditu ikasleen aurretiazko ezagutzak, ikaskuntza-estiloa eta aniztasuna hautematea ahalbidetzen diote tresnak, baliabideak eta estrategiak.

3. maila: Garatua

Sakonki ezagutzen ditu bere etapako eta aurreko eta osteko etapetako ikasleen eboluzioaren faseak.

Ezagutzen ditu aurreko eta ondoko mailetako irakasleekin koordinatzeko mekanismoak.

Badaki zer egin ikasleak motibatze eta beren ikaskuntza-prozesuan inplikatzeko, ikaskuntzak esanguratsu egiteko eta ikasle guztiek ikasteko.

4. maila: Aurreratua

Ezagutza sakona eta eguneratua da ikasleen eboluzio-faseei buruz, baita ikasleen garapen kognitiboan zailtasunak sortzen dituzten kausei buruz ere.

Eskola-komunitateak aditua dela aitortzen du.

Bere ezagutzak ikastetxe barruko eta kanpoko beste profesional batzuekin partekatzen ditu.